

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Behin betiko onartzea Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren AI-02 jarduketa integratuaren birpartzelazio-proiektua.**

Basauriko alkateak, 2026ko uztailaren 20an, 3796/2026 Dekretua eman du Basauriko HAPOn AI-02 jarduketa integratuaren birpartzelazio-proiektuari buruz, eta honako hau xedatzen du:

*Lehenengoa:* Behin betiko onartzea Basauriko HAPOn AI-02 Jarduketa Integratuaren Birpartzelazio Proiektua. Proiektu hori Hitzarmen Batzordeak onartu zuen 2026ko ekainaren 26an egindako bileran, eta 2026ko ekainaren 29an aurkeztu zitzaion Udalari.

*Bigarrena:* Ebazpen hau administrazio-bidean irmoa denean eta bertan aurreikusitako zenbatekoak ordaindu eta justifikatu ondoren, Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduan eta hipoteka-legerian aurreikusitako solemnitateekin eta baldintzekin, behin betiko onartutako birpartzelazio-proiektuaren edukiaren administrazio-ziurtagiria ematea, Jabetza Erregistroan aurkez dadin.

*Hirugarrena:* AI-02 Jarduketa Integratuaren Hitzarmen Batzordeak udalari nahitaez laga beharko dizkio, doan eta, hala badagokio, urbanizatuta, honako azalera hauek: 810,30 m<sup>2</sup> espazio libre (ezpandan) eta 415,19 m<sup>2</sup> bideetarako, eta ETSri (Eusko Trenbidea Sarea) Trenbide Sistema Orokorretarako lurzatiak (sestra azpikoa eta gainean), birpartzelazio-proiektuan esleitzen zaizkionak (277,99 m<sup>2</sup>-ko azalera).

*Laugarrena:* Ebazpen honen kopia bidaltzea Zergak Kudeatzeko Sailari, dagozkion legezko ondorioetarako.

*Bosgarrena:* Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta legez jar daitezkeen errekursoak adieraztea.

*Seigarrena:* Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean, Udalaren webgunean eta probintziako egunkari batean argitaratzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Bilboko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio orain jakinarazten den administrazio-egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Berraztertze errekurtso hori administrazio-isiltasunez ezetsitzat joko da, baldin eta, errekurtsoa jarri zenetik hilabeteko epean, haren ebazpena jakinarazten ez bazaio. Azken kasu horretan, jakinarazpen honen lehenengo paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, ezespina administrazio-isiltasunez gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurretik adierazitakoari kalterik egin gabe, aurkaratzeko beste bide batzuk erabili ahal izango ditu, egoki iritziz gero.

Basaurin, 2026ko uztailaren 21ean. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren